

XEDAPENA, 2023KO APIRILAREN 17KOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEARENA. XEDAPEN HONEN BIDEZ ONARTZEN DA LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZAERA LORTZEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA, TEKNIKARI MANIPULATZAILEAREN KATEGORIAN, OSATEK-EN DESTINOA IZANIK.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak, OSATEKen destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategorian.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, zuzendari kudeatzaileak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, baztertzeko-arrazoia adierazita, hala badagokio. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEKen webgunean (www.osakidetza.euskadi.eus/servicios-osatek/-/oferta-de-empleo-2022/) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: 5 egun balioduneko epea ematea zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko, Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileari bidalitako idazki baten bidez, edo helbide elektroniko honetara: tm6488osatek@campo-ochandiano.com; edo posta arruntez: OSATEK, S.A., Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 40011, Bilbao.

Bilbon, 2023ko apirilaren 17an



OSATEK
Zuzendari gerentea

Josu Xabier Llano Hernaiz



OSATEK

Data/fecha: 2023 API. 17
ABR. 17

Xedapen-erregistroa / Registro de disposiciones

ZK/Nº: 16/2023